

Ordizian, **2016ko azaroaren 7an**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu ziren:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: José Miguel Santamaría Ezeiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EH-Bildu
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

INKORPORAZIOAK ETA AUSENTZIAK

IRABAZI alderdiaren ordezkaria den Carlos Gonzalez Astiz ere azaldu da.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK

- 1.-2016ko urriaren 17ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 € tatik gorako fakturak.
- 3.- Zenbait txosten eta eskaera.
 - 6.000 € tatik beherako fakturak.
 - Kabia (Zaharren Udal Egoitza eskualdatzea)
 - Zerbitzu sozialen saila. (PSE-EE(PSOE)ren idatzia)
 - Funtzionarioak ez diren langileek Barretxe eraikina erabiltzea.
 - Barretxeko bonbillen rebisioa.
 - Etxezarreta eta Santamaria kaleetako bizilagunen idatzia kale horretako zaratek sortzen dituzten eragozpenei buruzkoak.
 - Memoriaren eguna.
- 4.- Galde-erreguak
 - Elkarbizitzaren eta normalizazioaren alde udalak lan egin dezan gogorik badagoen.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:15



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko urriaren 17ako bilkurako akta onartzea.

Aho batez onartu da.



2.- 6.000 € tatik gorako fakturak.

Sukia and.

Bere ustez matutinaren hondakin bilketa bereziaren zerbitzuak sortzen dituen fakturen zenbatekoa jakitera eman beharko litzateke.

Fakturen aldeko irizpena eman da.



3.- Zenbait txosten eta eskaera.

- 6.000 € tatik beherako fakturak.

Oniritzia eman zaie.

.....

- KABIA:

Alkate in.

Azaldu du Zaharren Udal Egoitza eskualdatzeko aurreikusi den egutegiaren barruan, 2017ko bigarren sei hilabeterako izatea aurreikusten dela. Duela 15 egun bilera egin zen Foru Aldundian eta bertan izan ziren Alkate jauna, Dubreuil jauna eta Egoitzako gerentea. Orduan jakin zuten eskualdaketa 2017an izango zela.

Lan-talde bat sortu zen Kabiako teknikariek eta eskualdatuko diren udal egoitzetako hainbat gerenterekin eman beharreko zerbitzuak homologatzeko eta zerbitzu hauek emateko moduz hitz egiteko.

Horrekin batera, jakinarazi du egoitzetakoak bertakoak diren langileak Kabiara pasako direla eta esleipendun enpresen zerbitzuetako langileek azpikontratakoak izaten jarraituko dutela.

Konplexutasuna izan omen da dirudienez eskualdaketaren egutegia finkatzeko irizpidea.

Eguren jn.

Egoitzaren eraikina indarrean dagoen araudira egokitzeko egin behar ziren inbertsioen gaia nola geratzen den galdetu du.

Dubreuil jn.

Erantzun du esanez inbertsioen gaiaz ez dela hitz egin. Dirudienez Kabia egoitzaren kudeaketa eta funtzionamenduaren eskualdaketaz arduratzen ari da soilik baina inbertsioen gaia ez du Kabiak eramaten, Foru Aldundiak berak baizik.

Informazioa ematen jarraituko dutela esan du.

Eguren jn.

Adierazi du berak inbertsioen gaiari eutsiko liokeela datorren urterako aurrekontuak prestatzen hasiko garelako eta aurreikusi egin behar direlako.

.....

PSE-EE (PSOE)ren izenean Dubreuil jaunak egindako proposamena ondorengoaren inguruan:

- Zerbitzu sozialen saila:

Gaia Udal mailan aztertuko da ondoren GOIEKI S.A.ra emateko.

.....

- Funtzionarioak ez diren langileek Barretxe eraikina erabiltzeari buruzko Delegazioaren irizpena.

Gobernu Batzordea jakinaren gainean dago.

.....

Udal aparejadorearen oharra Udal Argiketariak **Barretxeko** eskailera-buruetatik pasatzeko (azkeneko bi eskailera-buruak) **bonbillak azter ditzan.**

.....

- Etxezarreta eta Santamaria kaleetako bizilagunen idatzia kale horretako zaratek sortzen dituzten eragozpenei buruzkoak.

Gobernu batzordeko kide guztiei eta Carlos Gonzalezi pasa kopia.

.....

- Memoriaren eguna:

Eudelen idatzia, datorren azaroaren 10ean, osteguna, 12:00etan, Plazan 5 minutuko kontzentrazioa egin dadin indarkeriaren biktimak aitortzeko, iraganean gertatutako eta zoritxarreko egoerak ez ahazteko eta horrelako gehiago ez izateko.

Kopia bana pasako zaie Gobernu Batzordeko kideei,

.....

- Hondakinen bilketa:

Eguren jn.

Egutera bidean hondakinen bilketak sortu duen arazoaz galdetu du.

Moreno and.:

Erantzun dio esanez ez dela kexa askorik egon aldaketaren inguruan. Gaia Sasietarekin eta Hondakinen Mahaian aztertzen ari dira.



3.- Galde-eskeak.

Sukia Andrea.

Galdetu du ea konpromisoa har dezakegun eta Udalak elkarbizitzaren eta normalizazioaren alde lan egin dezan gogorik badagoen. Gainera Foru Aldundiaren diru-laguntzak daude horretarako.

